209. zenbakia

Azpeitian zer?

Udal aldizkaria

Adinekoak: prebentzioan oinarritutako zerbitzuak

Telefono interesgarriak

Zentralita	943 15 72 00
Hirigintza	943 15 71 91
Gizarte Zerbitzuak	943 15 71 92
Kultura	943 15 70 68
Kirolak	943 15 00 95
Parekidetasuna	943 15 79 28
Emakumeen Txokoa	943 15 70 55
Iturritxiki Ludoteka	943 15 11 79
Txiki-Txoko Ludoteka	943 15 05 16
Gazte Informazio Bulegoa (GIB)	943 15 71 60
Eguneko Zentroa	943 15 74 96
Liburutegia	943 15 71 95
Udaltzainak	943 15 13 13
Igerilekua	943 81 41 21
Kiroldegia	943 81 30 69
Udal Euskaltegia	943 81 19 47

Azpeitia
Denontzat

Ale honetan zer?

Elkarrizketa 3
Etxe tutelatuak 6
Adinekoentzako zentroa 8
Etxez etxeko zerbitzuak 12
Azterketa 14

Azpeititik kanpo bizi arren, zure etxean jaso dezakezu **Azpeitian Zer?** aldizkari hau posta bidez. Egin eskaria **943 15 71 85** (Alkatetza) telefonoan.

Argitaratzailea: Azpeitiko Udala · **Egilea:** Prentsa bulegoa
Argazkiak: Azpeitiko Udala. · **Diseinua:** Sorland
Maketazioa: Sorland
Ale kopurua: 7.000 · **L.G:** SS - 1148/91

Herritarren Arreta Zerbitzua

Azpeitiko Udaleko lehen solairuan aurkitzen da Herritarren Arreta Zerbitzua. Dokumentuen erregistroa, errolda agiria atera, eskaera orokorrak zein lizentzia eskaerak edo kontsultak egiten dira bertan.Neguko ordutegian, astelehenetik ostiralera, 07:30etatik 14:30era izaten da zabalik; ostegunetan salbu. Egun horretan, 07:30etik 19:00etara, etenik gabe, eskaintzen zaie zerbiztua herritarrei.

“Udalaren helburua da zahartzaroko etapa bizi-kalitate on batekin bizi ahal izatea, eta inor ez geratzea arretarik gabe. ”

Leire Goenaga
Gizarte Zerbitzuen Batzordeburua

Egindako aurreikuspen demografikoaren arabera, 2031. urtean, azpeitiarren laurdenak 65 urte baino gehiago izango ditu. Hau da, adineko 3.900 pertsona gehiago izango dira. Aurreikuspen horren arabera, epe motzean, mendekotasun tasak antzera mantenduko dira eta 691 pertsona estimatzen dira 2031rako mendekotasun egoeran. Gizarte zerbitzuak behar dituzten pertsonen kopurua antzekoa izango da, asko artatuta daudelako jadanik, baina horri guztiari aurrea hartu behar zaio edozein kasutan.

Prebentzioa inbertsioa da, etorkizunera begirako aurrezpena delako. Zerbitzu batzuk geroratu eta bizi-kalitatea hobetzen da.

Hortaz, aurreikuspen horiek kontuan hartuta, prebentzioari garrantzia ematea lehenesten da, zerbitzuak etxean ematea, baina zein dira Udalaren erronka eta ardura nagusiak, eta nola gauzatzen da laguntza hori?

Aurreikuspen horien arabera, gehien haziko den kolektiboa zaintza gehien behar izango duena da, 80 urtetik gorakoa, alegia. Alde horretatik, bi kontu daude: alde batetik mendekotasuna duten herritarren kopurua handitu egingo da, beraz, gure helburua da inor ez geratzea zaintza edo arretarik gabe, hori delako zaintza behar duen pertsona baten bizi-kalitatea bermatzen duena, eta guretzat hori oso garrantzitsua da. Udalaren helburua da behar duenari bermatzea bizi-kalitate on batekin bizi ahal izango duela zahartzaroko etapa hori. Eta mendekotasun maila batera iritsitakoan ezinbestean behar denez zaintza eta arreta, igotzen denean mendekotasuna dutenen kopurua, Udalak handitu egin behar ditu zerbitzu horiek.

Bestalde, 65 urtetik gorakoen kopurua ere handitu egingo da, eta zahartzaro on bat bizi ahal izateko aukera, zahartzaro aktibo bat eta ilusioz biziko duten etapa bat izateko aukera izan behar dute; izan ere, bizi-itxaropena asko luzatu denez, oraindik hainbat urtez gozatu ahal izango duten etapa bat hasten da. Bestelako bizi-proiektu baten hasiera bat da. Eta hor prebentzioa oso garrantzitsua da, eta aktibo mantentzeko zerbitzuak eskaini behar dira, litekeen mendekotasun egoera batera ahalik eta beranduen iristeko.

Prebentzioan inbertitzeak garrantzia berezia hartzen du, gaur egun, ezta?

Prebentzioari garrantzi handia ematen diogu, Udalak hainbat programa ditu martxan horri begira: oinez ibiltzeko taldeak, eguneko unitatea ere bai. Horretan 15 laguneko bi talde daude, goizero hezitzaile batekin elkartzen dira eta hainbat ariketa lantzen dituzte. Ludotekako espazioa partekatzen dutenez, egunen batean haurrekin jardueraren bat egiteko aukera ere izaten dute. Burua lantzeko eta estimulatzeko ariketak ere egiten dituzte.

> **Gaur egun beste zaintza eredu baten baitan eraikitzen ari dira zentro asko eta Azpeitian nahi dugu aldaketa horretan buru-belarri sartu eta proiektu berriak probatu.**

Horrekin, gainera, etxetik ateratzeko arrazoi bat izaten dute eta errutinak markatzen dituzte. Hau guztia prebentzio-lan garrantzitsua da, izan ere bertan parte hartzen duten pertsona askok, aukera hori gabe, mendekotasun maila handiagoa izango lukete edo mendekotasun arriskuan izango lirateke. Honi esker, mendekotasun horretara iristerainoko aldia pixka bat atzeratzea lortzen da. Prebentzioa inbertsioa da une honetan, etorkizunera begirako aurrezpena delako, beste zerbitzu batzuk geroratu egiten direlako eta, batez ere, bizi-kalitatea asko hobetzen delako. Gakoa da.

Aurreikuspenek erakusten dute zaintza informala eskuratzeko zailtasun handiagoa izango dela etorkizunean, eta bestelako eredu batzuk aztertu beharko direla. Udalak, orain arteko zerbitzuez gain, etxez etxeko Zerbitzu Integrala jarri du martxan, besteak beste.

Faktore garrantzitsua da zaintza informalaren galera: bai familia-ereduak aldatzen ari direlako eta askoz txikiagoa direlako, bai emakumea lan munduari atxiki zaiolako. Beraz, emakumeek etxeetan bermatu izan duten zaintza hori gero eta gutxiagora joango da, eta etxeko batek zaindu ezin badu, beste norbaitek egin behar du. Horrek esan nahi du zaintza profesionalaren eskaera handitu eta indartu egingo dela eta berriak sortu beharko direla. Gaur egun ez dauden aukera berriak probatu eta martxan jarri behar dira, argi baitago gaur egun adineko bati edo zaintza behar duen bati non zaindua izan nahi duen galdetuz gero, bere etxean geratu nahi duela erantzungo duela; hortaz, Udalaren erantzukizuna da bermatzea pertsona horiek etxean ondo zainduta egotea. Horregatik etxez etxeko laguntza indartu behar da, eta etxeetan profesionalek gero eta gehiago zaindu beharko dituzte arreta behar duten herritarrak, etxetik irteteko unea iritsi arte. Eta hor ere orain egoitza eredu zehatz bat bakarrik ikusten dugu, baina etxetik irteteko beste modu batzuk badaude eta martxan jarri behar dira: etxebizitza komunitarioak, etxebizitza tutelatuak, etab. Alderdi horretan, azpiegituren gaiari ere buelta bat eman behar zaio, eta gaur egun eraikitzen diren egoitza edo zentroak ere beste zaintza eredu baten baitan eraikitzen ari dira eta hor aldaketa gertatzen ari da. Azpeitian nahi dugu aldaketa horretan buru belarri sartu eta proiektu berriak probatu eta esperimentatu.

Orain arteko azterketak kontuan hartuta, Udalak etxebizitza tutelatuak eraikitzea erabaki du, adinekoei zuzenean eskaintzen zaizkien zerbitzuak osatzeko. Zertan da proiektu hori?

Aurretik, sinbolikoki, Udalak eduki ditu pare bat etxebizitza adinekoak modu komunitarioan bizitzeko; zortzi/hamar pertsona bizi dira, Udalak kudeatutako bi pisutan. Baina ez da, horretarako propio antolatutako etxebizitza blokea, beraz, orain arte ez da halako eskaintzarik egon, eta SIISek egindako ikerketan argi geratu zen etxebizitza tutelatuak behar ditugula Azpeitian. Beraz, Udala proiektua prestatzen hasi zen: alde zaharrean etxebizitza zahar bat erosi zuen udalak eta 12 etxebizitza apartamentu tutelatu gisa eraikitzeko proiektua gauzatu du.

Etxebizitza hauek eraikitzen ari dira orain eta uda aldera bukatzea aurreikusita dago. Ondoren etorriko dira araudia prestatzea eta eskaerak egiteko epea zabaltzea. 12 etxebizitza horietan 16 pertsona bizitzeko aukera egongo da.

> **Perdillegiko egoitza proiektua: eredu berritzailea, pertsonak erdigunean jartzen dituena eta ohiko eredua irauli nahi duena.**

Zaintza eredu berritzailea, pertsonak erdigunean jartzen dituena eta ohiko eredua irauli nahi duena, horixe da Perdillegin egoitza berri bat eraikitzeko aurkeztu berri duzuen aurreproiektuak eskaintzen duena… Zein dira proiektu honen ezaugarri nagusiak?

Urtebete baino gehiago daramagu proiektu hau garatzen, eta guretzat azpiegitura soil bat baino askoz gehiago da. Azpiegiturak berak, estetikoki ere, gaur egun ezagutzen ditugun egoitzekin zerikusirik ez dauka, etxebizitza-itxura handiagoa dauka eta hori oso garrantzitsua da; aipatu dugun bezala, bakoitzak bere etxean bizi nahi du, baina ezin bada, behintzat etxearen ahalik eta antz handiena duen toki bat izan dadila. Egoitza honek hori zaintzen du batez ere, etxebizitza txiki batzuk izango dira, ez gela soilak. Baina horrez gain, espazio zabalak, eremu komunak, aire zabaleko guneak… izango ditu. Egungo egoitza instituzional horien guztiz ezberdina izango da. Horrek bakarrik asko errazten du zaintza pertsonalizatura bideratutako arreta.

Aurreproiektu honetan proposatutakoak beste modu batera zaindua izateko aukera eskaintzen du, eta guretzat garrantzitsua da hori. Mendekotasuna izan arren, pertsona horiek emozio eta sentipenak edukitzen jarraitzen dute, eta oso garrantzitsua da nola zaindua izan nahi duen entzuten jakitea eta horren arabera jardutea, eta ez, orain arte egin izan den bezala, alderantziz. Hau bezalako proiektuek hori bideratzeko aukera ematen dute.

Egoitza honek gaur egun dagoena ordeztuko du eta plaza gehiago sortuko dira.

Aspaldi entzuten ari gara zaintza eredua aldatu behar dela. Baina eredu batean zein bestean, zaindua eta zaintzailea daude. Alderdi biei egin behar zaie arreta.

Zalantzarik gabe, ezin dugu ahaztu zaintzaileak zaindu egin behar ditugula. Gainera, zaintzaileen kolektiboa oso feminizatua dago, laguntzaileena batez ere, eta, askotan, beraien lana ez da behar bezala aintzat hartzen eta ez gara jabetzen zer garrantzitsua den egiten dutena.

Etxe tutelatuak, adinekoentzako zerbitzuak indartzeko

Azpeitiko Udalak, SIIS ikerketa zentroarekin elkarlanean, Azpeitiko demografiaren bilakaerari buruzko azterketa egin zuen iaz, 2031. urterako prospekzioa jasota eta gizarte zerbitzuen etorkizuneko premia estimazioa ere aztertuta.

Aurreikuspen horren arabera, herritar oso zaharren tartea haziko da batez ere; beraz, 2031. urtean 65 urtetik gorako 850 adineko gehiago izango dira; hots, azpeitiarren ia laurdenak 65 urte baino gehiago izango ditu, eta adineko pertsonak 3.900 baino gehiago izango dira. Ondorioz, mendekotasunen bat duten pertsonak % 34 gehiago izango dira eta mendekotasun egoerak gero eta adin zaharragoetan pairatuko dira, hainbat faktoreren eraginez. Hortaz, 80 urtetik gorakoetan mendekotasun egoera arinak handitu egingo dira eta mendekotasuna adin oso altuetara atzeratuko dela dirudi. Datu horietan oinarrituta, herritarren bizi kalitatea eta ongizatea bermatzeko biderik onena prebentzioan lan egin eta inbertitzea dela ondorioztatu du Udalak. Beraz, adinekoei eskaintzen zaizkien zerbitzuak ondo aztertu eta etxebizitza tutelatuen beharra egongo zela ondorioztatu zen, eta behar horri erantzuteko proiektua jarri zuen martxa. Mendekotasunik ez edo mendekotasun oso txikia izanik, egunerokoari aurre egiteko zailtasunen bat duten adineko pertsonentzako etxebizitza tutelatuak izango dira; adinekoen bizi kalitatea eta ongizatea helburu, eta prebentzioan esku hartzeko modu gisa. Erabiltzaile bakoitzaren beharretara egokitutako zerbitzua eskaini nahi du Udalak.

Hortaz, etxebizitza horiek egunerokoa aurrera eramateko zailtasunak dituzten pertsonentzat izango dira: irisgarritasun edo mugikortasun arazoak, beharrizan asistentzialak edo bakardadea bizi duten pertsonentzat, alegia; haien bizi kalitatea hobetu eta bizitzeko beste modu bat eskaintzeko.

Lehen aldia da etxe tutelatuen gisako zerbitzu bat martxan jartzen dela herrian: 12 etxebizitza eraikiko dira Elizkaleko 24-26-28 zenbakien orubean. Horietatik, 8 logela batekoak eta beste 4 bi logelakoak, sukaldea, komuna eta egongela izango ditu etxebizitza bakoitzak, bai eta erabiltzaileak elkartzeko espazio komunak ere. Guztira, 16 pertsona bizitzeko lekua izango da. Horrekin, orain arte Udalak adinekoei zuzenean eskaintzen dizkien zerbitzuak osatu nahi dira.

Udalak 1.341.936,55 €-ko aurrrekontua erabili du proiektu honetan.

PROIEKTUA, MARTXAN

Proiektua martxan da eta uda aldera obrak bukatuta egotea aurreikusten da. Hartara, udazken aldera jendea bertan bizitzen jartzeko modua izango dela aurreikusten du Udalak.

Etxebizitza tutelatuak: adinekoen bizi-kalitatea eta ongizatea helburu, eta prebentzioan esku hartzeko modu gisa.



Adinekoentzako zentroa, zaindua izateko eredu berritzailea

Joan den hilabetean aurkeztu zuten Azpeitiko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Matia Fundazioko kideek elkarlanean landutako azpiegitura proiektua "Adinekoen zaintzaren garrantzia" jardunaldian.

Proiektu berri hau ez da orain arte ezagutu izan diren ohiko egoitza bat, bi urteko lanketaren ondoren, zaindua izateko beste modu bat eskainiko duen zentro berri bat baizik. Proiektua ez da azpiegitura hutsera mugatzen, ordea, pertsona ardatz izango duen zaintza ekosistema integral bat sortzea da helburua. Adinekoak erdigunean izango dituen zerbitzua izango da, bizitzako uneren bateko zailtasunei aurre egiten lagunduko diena. Adineko bakoitzaren egunerokora egokituko den zaintza-ekosistema bat sortzea da helburua, eta ez adinekoak sistemara egokitu beharko duten proiektua. Zaintzaren alorrak aldaketa beharra duela argi ikusi denez azken urteotan, proiektu berri eta berritzaile honekin, adinekoen, familien eta profesionalen ongizatea bilatu nahi da.

PERTSONAREN BEHARRIZANETARA EGOKITUTAKO SISTEMA

Eragile guztientzat, begi bistakoa da adinekoen zaintza sistemak aldaketak behar dituela. Horregatik, pixkanaka, aldatzen ari da adinekoen eta mendekotasuna duten pertsonentzako zentroen ospitale-eredua, eta eredu berritzaileak sortzen hasi dira. Azpeitiko zentroarena ere eredu berritzailea izango da. Hala, pertsona bakoitzaren nahi eta beharrak jarriko dira erdigunean eta sistemak horiei erantzuteko zaintza-ekosistema bat sortuko du. Eredu horrek goitik behera eraldatuko du gaur egungoa.

Tokian tokiko ekosistemak sortzeko ahalegina egitea ezinbestekoa da: gertukoa, zuzena eta pertsonalizatua. Izan ere, pertsonen bizi proiektuei jarraipena emango dioten eremuak izatea lortu nahi da.

PROIEKTUAREN FUNTSA, ERAIKINA ETA KOKAPENA

Funtsa

Zerbitzuak bateratzeko Europako planteamenduei jarraikiz, politika publikoak arreta eredu integratu eta koordinatu batzuetarako eraldaketara bideratu behar dira, eta eredu horiek malgutasunez egituratu behar dira, pertsona bakoitzak bere ibilbidearen arabera behar duen laguntza modu eraginkorrean jaso dezan: zerbitzuak, laguntzak, administrazioaren zainketa integratuak, eta ingurunearen eta komunitatearen hurbiltasuna. Iraupen luzeko zainketen egitura funtzional baterako, ezinbestekoa da zainketa horiek koordinazio soziosanitarioan oinarrituta egotea. Zainketa horiek pertsonaren duintasunerako eskubidea, haren autonomia pertsonalaren sustapena eta pertsonarengan ardaztutako arreta dituzte ardatz.

Zainketen beharrari dagokionez, laguntzen intentsitate handiagoa edo txikiagoa behar duen pertsonaren testuinguruak hartzen dira kontuan.

Zaindua izateko beste modu bat eskainiko duen zentroa izango da.

Adibidez, bizilekua, elkarlaneko etxebizitzak, bizitoki alternatiboak eta egoitza zentroak aipa daitezke. Bizi proiektuarekiko hausturarik gabe eta bizitza duina eta zentzuz betea ahalbidetuz.

Oinarrizko ideia hori gauzatzeko eraikuntza honako printzipio hauek gidatuko dute:

Duintasuna: tratu onaren eta pertsonarengan ardaztutako arretaren ikuspegiaren oinarria.

Autonomia: autodeterminazioarekiko eta aukeratzeko eta norberaren bizitza kontrolatzeko ahalmenarekiko errespetua; eredua gidatu behar duen aniztasun irizpidearen jatorria.

Zeharkakotasuna: zahartzen ari diren pertsonen talde batean ongizatea sortzeko, ezinbestekoa da eragileen, sailen, administrazio publikoen eta inplikatutako sektore guztien konpromisoa lortzea.

Parte-hartzea: ezinbestekoa da pertsonen ahotsa kontuan hartzea inplikatzen dituzten erabakiak hartzeko prozesu guztietan.

Erantzunkidetasuna: eredu honek adin guztietarako ongizatearen gizarte baten eraikuntzan belaunaldi guztiak inplikatu dituen herritarren mugimendu bat sortzea du xede.

ERAIKINAREN DESKRIBAPENA

Proposamena Urola bailaran kokatutako, Azpeitiko HAPOan 2.2. Perdillegi izenarekin identifikatutako eta hiri lurzoru gisa sailkatutako azpieremuari dagokio. Partzela hori hiri ingurune batean dago, eta kokapen estrategikoa du udalerriko bide komunikazioei eta oinezkoen komunikazioei dagokienez.

125 lagunentzako plazan izango dira. Unitate bakoitza 35 metro koadroko apartamentua eta espazio komunak.

Eraikin berriak 10.000-15.000 metro koadro artean izatea aurreikusten da, eta oso leku egokian kokatuta egongo da, herri-gunean. Zainketa-eremua etxadi erdi ireki bat izango da, bolumen mailakatuarekin. Eguzkialdi luzea izango du zentroak, bai eta pertsonen bizi kalitatea hobetuko duten kanpoko egonaldiak ahalbidetzeko eremu ugari sortzeko aukera ere. Eraikinen arteko barruko patio bat ere izango du, eta espazio publiko eta pribatuen arteko oreka bilatuko da erabiltzaileentzat. Kalearekin gertutasuna izatea garrantzitsua da, herrian integratuta sentitzeko.

Beheko solairuan, plazaren eta patioaren inguruan kafetegia, ile-apaindegia, gimnasioa/errehabilitazioa, ludoteka, aparkaleku publikoa, profesionalen bulegoak, medikua, erizaina, gizarte langilea, eguneko zentroa eta farmazia egongo dira.

Lehenengo pisuan sukaldea, garbitegia, langileen bulegoa, aldagelak, lau bulego, bilera gela, beilatokia, garaje pribatuaz gain, bizikidetza unitate bat egongo da 20 lagunentzako. Bigarren eta hirugarren solairuetan 15 eta 20 lagunentzako bi bizikidetza unitate egongo dira bakoitzean; laugarrenean 20 lagunentzako beste etxebizitza unitate bat eta bosgarrenean 15 lagunentzako beste bat. Guztira, 125 lagunentzako plazak izango dira bertan. Etxebizitza unitate bakoitzean, pertsona bakoitzak 35 metro koadroko apartamendu bat izango du, eta espazio komunak izango dira bestelako erabileretarako. Etxe bakoitzak, sarrera, oinarrizko sukalde bat, jangela, egongela, logela eta bainugela izango ditu. Eta kanpoaldera ematen duen leiho bat izango du gutxienez.



Espazio pribatuen diseinuak atsegina eta etxe-girokoa izan behar du eta hortaz, pertsona bakoitzak bere altzariak, ondasunak eta bere oroitzapenak eraman ahal izango ditu, bere mundu propioa sortzerik izan dezan.

Espazio komunei dagokienez, haien diseinuak eta antolamenduak aukeraketa erraztuko du, pertsona bakoitzak eguna non eta norekin eman nahi duen erabakitzerik izan dezan.



Etxez etxeko zerbitzuak

Etxez etxeko zerbitzuak: arreta integrala

Etxean bizitzen jarraitzea erabaki duten herritarrek beren garapenerako lagungarri izango zaien arreta egokia jasotzeko aukera izango dute



Herritarren bizi-kalitatea hobetzeko lanean, Udalaren lehentasunetako bat izan da herritarren beharrei erantzutea, izan medikoak, psikologikoak, emozionalak, ekonomikoak edo sozialak, eta horri erantzuteko, ezinbestekoa da laguntza-mekanismo publikoak eskaintzea. Kasu honetan, mendekotasunen bat duten edo hauskortasun egoeran dauden pertsonei, arreta pertsonalizatu, integral eta espezifikoak eskaintzea da helburua. Izan ere, 2030erako, mendekotasuna duten eta laguntza-premiak dituzten pertsonen % 85ek beren etxean bizitzen jarraitzea izan da erronketako bat eta zerbitzu hauekin, etxean bizitzea erabaki duten herritarrek beren garapenerako lagungarri izango zaien arreta egokia jasotzeko aukera dute.

Arreta integrala: mendekotasuna duten pertsonen eta adinekoen zaintzarako zerbitzu berritzailea.

Hori horrela, etxez etxeko zerbitzu integral berria jarri zuen martxan Udalak duela urtebete: 365 egunez, 24 orduz eskaintzen den zerbitzu integral eta publikoa. Mendekotasuna duten pertsonen eta adinekoen zaintzarako zerbitzu berritzailea da. Mendekotasun bat izanagatik oraindik etxean bizitzeko gai diren edo horretarako hautua egin duten mendeko pertsonen zaintza, askotan, familiarengan gelditzen da; horregatik, arreta etxean bertan eskaintzen zaie etxean zainduak izatea erabakitzen dutenei.

Zerbitzu honen bidez, ahal den neurrian, pertsonaren mendekotasuna konpentsatzeko ahalegina egiten da; zerbitzuak pertsonen independentzia maximizatzen du; gizarte-interakzioa sustatu eta segurtasun-sentimendua indartzen du, besteak beste. Gainbegiratze pertsonala, gizarte-laguntza, larrialdiko arreta eta psikoestimulazio-arreta ere eskainiko dira.

Erabiltzaile bakoitzaren premiei erantzuten dion zerbitzua da, eta arreta hori parte-hartzean eta ingurunea aukeratzeko eta kontrolatzeko gaitasunean oinarritu da.

Urtebeteko ibilbide honetan, batez beste, 78 urte dituzten 41 laguni eman zaie arreta. Erabiltzaile gehienek mendekotasun arina duten arren, mendekotasun eta urrakortasun egoerak oso desberdinak dira, eta profesionalen zereginak eta funtzioak erabiltzaile bakoitzaren arabera egokitu dira. Urtebeteko ibilbide honetako datu nabarmengarriena da, dena den, balioetsi diren 31 kasutatik 25ean hobekuntza nabarmena izan dela: egoera emozionala hobetzea, gizarte-harremanak indartzea, bakardade-sentimendua arintzea eta pertsonaren autonomia indartzea azpimarratu dituzte.

Bakarrik bizi diren 65 urtetik gorako herritarren inguruko azterketa: sare sozial sendoa eduki arren, bakardade sentipena oso hedatua dago

Biztanleriaren zahartzean ekarriko dituen erronkei aurre egiteko bidea lantzeko, azkeneko urteotan hainbat ikerketa egin ditu Udalak adineko pertsonen inguruko informazioa biltzeko eta haien bizi-kalitatea hobetzen jarraitzeko. 2017 urtean ekin zitzaien ikerketa horiei, lehenik eta behin 80 urtetik gorako biztanlerian oinarrituta; ondoren, 2018an, 75-80 urte bitarteko herritarrak ikertu zituzten.

Bakardadea bizitzako edozein alditan senti daiteke, eta horri erantzutea jendarte osoaren erantzukizuna da.

2019an, 70-75 urte bitarteko multzoa aztertu zen eta, azkenik, 2020an, 65-70 urte bitarteko pertsonak izan ziren ikerketaren ardatza. Ikerketa aldia, ordea, COVID-19aren pandemiarekin bat etorri zen, eta horrek bereziki eragin du informazio eta datu horietan guztietan. Hori dela eta, joan den azaroan hasitako ikerketan Azpeitian bakarrik bizi diren 65 urtetik 80 urte arteko biztanleriarengan COVID-19ak izan duen eragina aztertu nahi izan da, bereziki azken bi urteetan hartu diren neurriek nola eragin duten haiengan; hain zuzen, zahartzaroan dauden eta bakarrik bizi diren pertsonek izan dezaketen bakardade sentimendua.

Izan ere, bakardadea subjektiboa edo objektiboa izan daiteke; hau da, bakardade objektiboa fisikoki bakarrik egotea da, eta hori hautatua izan daiteke edo ez, baina ez ditu nahitaez sentimendu ezkorrak eragin behar. Bakardade subjektiboa, berriz, zuzenean lotuta dago sentimendu negatiboekin, nahi ez den bakardade sentipena eragiten duelako.

Bakardadea bizitzako edozein alditan senti daiteke, eta horri erantzutea jendarte osoaren erantzukizuna da, eta Udalak lehentasunezkotzat du herritarren babes soziala orokorrean, eta arreta berezia eskaintzen die adineko pertsonei.

Ikerketa honetan, Azpeitian bakarrik bizi diren 65 eta 80 urte bitarteko 321 herritar hartu dira kontuan, eta horietatik, 176 herritarrekin harremanetan jartzea lortu da. Ikerlanean parte hartu dutenetatik % 73,9 emakumeak izan dira, eta % 26,1 gizonak, eta bakarrik bizi diren arren, % 91,5ek familia du Azpeitian.

Bakarrik bizi diren adineko pertsonek sentitzen duten bakardadeari erantzuteko eta harreman sozialak indartzeko egin behar dugu lan.

Besteak beste, honako ondorio hauek eman ditu ikerketak:

- Ikerketan parte hartu duten pertsonek osasun ona dute eta ohitura osasungarriak dituzte, gehienak autonomoak eta independenteak dira eta ez dute laguntza formal edo informalaren beharrik.
- Ikerketa honek erakutsi du COVID-19aren ondorioak uste baino leunagoak izan direla bai familia harremanetan bai harreman sozial eta lagunartekoan. Eta ikusi da herritar gehienek badutela sare sozial sendo eta estua, eta horrek bakardade sentipena urritzen du. Hala ere, bakardade sentipena espero baino hedatuago dago herritar multzo horretan.
- Aztertutako pertsonen ia erdiak –gehienak alargunak– aitortu du batzuetan bakardade sentipena izaten duela.

Sentipen horri aurre egiteko boluntarioen laguntza jaso edo boluntario izateko prest agertu dira elkarrizketatutako asko, eta bide bat izan daiteke, adin tarte honetako jendeak izan dezakeen premiari erantzuteko. Elkarrizketatuetako batzuek, boluntarioen zerbitzuaz gain, beste zerbitzu eta baliabide batzuk proposatu dituzte; hala nola, adinekoak elkartzeko gune berriak sortzea herrian; profesionalen zerbitzua areagotzea eta landa-eremuan bizi diren herritarrentzako arreta areagotzea.

Hortaz, ondorio garrantzitsua da bakarrik bizi diren adineko pertsonekin zer landu badagoela, sentitzen duten bakardade horri erantzuteko eta haien harreman sozialak indartzeko.

Azpeitia
Denontzat

www.azpeitia.eus

Gizarte Zerbitzuen bulego berria

Zugandik gertuago

1766ko Matxinada kalean gaude